

HAMEN DAO SAN MARTIN!

Ahor ba, urtiak segiduan emoten dau bueltia! Esan leike atzo bertan ibilli giñala guardasolpian sagar, ezti, ogi ta aza artian. Baiña aurten egun horretarako euxki zatitxo bat erositxa dakagu ta ez dao ardurarik.

Eguraldi ona ez bada nahikua zuek etxetik etaratzeko, euri artian be ikusi da jai giruak ez dauala atzera eitxen egun horretan. Ermuko, Mallabi zein Eibarko jentia ondo baiño hobeto daki zapatu horretan plaza inguruan egoten dan jai usaiñaren barri.

Umiak ez gero amamaren eta aitxitxaren etxian itxi, eurentzat egongo da ta zer ikusi. Aintziñako musika tresna ta txori koloretsu ta exotikuen kaixolen aurrian pozik emongo dabe denporia. Ta ez ahaztu Martintxo be hantxe egongo dala. Gure txarrixak jakin eragin doskunez, jan besterik ez dau eitxen egun horretan umien aurrian sendo ta edar agertzeko.

Goiz horretan plazan eukiko do-



Basarritxar asko egongo da aurten be azoka honetan.

zue ze ikusi, erosi ta jan. Basarritxarrak generoik onenakin dotoz. Animalixak bihar dan moduan gobernauaz ta ortuan gogor biharra

eiñaz etaratako generua eukiko dozue bistara.

Talua txorizuakin sarritxan jan dozuela? Aurten talua txokolatiakin ta herriko hainbat jendek eindako Euskal Pastizea (Gateau Basque) jateko aukeria izango dozue.

Babajana be egongo da 1.000 pezetaren truke. Baiña argi ibilli, ordubat t'erdixak dia ta izena emoteko ordu topial.

Jatekuakin baiño musikiakin gehixao betetzen dian horretakuak bazarie, eukiko dozue nun asetu: Trikitilarixak, dantzarixak, atsaldeko erromerixia...

Ah!, ta ez ahaztu San Martinen txupinazua aurreko bari-xakuan, hillan 3an, Mendiola jate txian izango dala! 1.500 pzta. ordainduta, bapo-bapo afaldu ta Unai Iturriaga ta Xabier Euskitze bertsolariak ikusi (kontutan eukitzekua) ta entzuteko beta paregabia eukiko dozuela!

ESTIBALITZ GONZALEZ
SANTOS VEGA

VI. SAN MARTIN AZOKA

AZAROAK 3- BERTSO-AFARIA

Menua:

-Unai Iturriaga
-Xabier Euskitze
Mendiola, 21:30etan.
1.500 pzta. Txartela aldeztu aurretik erosi behar da:
Txalaparta, Mendiola eta Zarautzarran.

Jamoia
Perretxiko Errebueltoa
Ganbak Plantxa erara
Redondua Saltsan
Limoizko Tarta
Kafea
Ogia eta Ardoa

AZAROAK 5-14-

Ermuko aintzineko musika tresnen erakusketa Kardinal Orbeo 6an.

AZAROAK 11- SAN MARTIN AZOKA EGUNA

9:00- Azoka osatzen duten saltokiak jarriko dira.

10:00- 11:00 bitartean- Epaimahaiaren balioztapena.

11:00- Azoka jendearentzat zabalduko da. Aurten, ezti,

gazta, sagardo, ogi, fruta eta ortuariekin batera, hegazti exotiko eta musika tresnen erakusketa.

11:30tik aurrera-Trikitilariak.

12:30- Gure ametsa dantza taldearen saioa.

13:00- Oihane Valenciano eta Eneritz Aranburu Euskadiko Trikitilari Txapeldunak.

15:00- Herri bazkaria plazan. Babajana, edaria, postrea eta kafea: 1.000 pzta.

Txartelak aldeztu aurretik hartu Solozabal edo Txalapartan, edo bestela, egunean bertan tabernako barran, 13:30 baino lehenago.

* Euria egiten badu herri bazkaria eta honen ondorengo egitarau osoa Merkatu Plazan izango da.

16:30- Sari banaketa.

17:00- Txerriaren zozketa eta Larraindantza.

17:30- Erromeria.